



TXOSTENA

APNABI, erreferentziazko elkartea autismoaren arloan



APNABI-Autismo Bizkaia irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, interes publikokotzat jotzen dena eta Autismoaren Espektroko Nahasteak (AEN) dituzten bizkaitarren familiak biltzen dituena.

Guraso talde baten ekimenez sortu zen duela 40 urte, jabetu baitziren ezinbestekoa zutela bat egitea, nahasmena, ziurgabetasuna eta beldurra gaindituz, beren seme-alabentzat etorkizun hobea eraikitzeko.

Gaur egun, APNABI Autismo Bizkaia erreferentziazko elkarte da Autismoaren Espektroko Nahasteen esparruan. 1.000 familia eta 220 profesional baino gehiagok osatzen dute, eta orduko espiritu berberarekin jarraitzen du, erakundeen eta beste eragile batzuen lankidetzaz duelarik. Zerbitzu-sare eta jardueren programa zabala eskaintzen du, autismoa duten pertsonen kalitatezko erantzun integral eta pertsonalizatua jasotzeko beren bizi-ziklo osoan zehar.

APNABIren helburu garrantzitsuenak

- Laguntza ematea AEN bat duen pertsonari eta bere familiari beren bizi proiektua garatu dezaten, horretarako babesa eta aukerak eskainiz, konpromiso etikotik abiatuta eta erantzun kolaboratiboak lehenetsiz.
- Gizarteratzen laguntzea AENdun pertsonari, eskubide osoko hiritar izan daitezen, gizarte justu eta solidario batean.
- AEN bat duten pertsonen garapen pertsonala eta gizarteratzea ahalbidetzea.
- AENa duten pertsonen beren ezaugarri eta beharrezkoen egokitzeko erantzuna jasoko dutela bermatzea.
- Sentsibilizazio soziala sustatzea, hiritarrak AEN bat duten pertsonen errealitateari hurbiltzeko, eta horrela, aurrera egiteko autismoa duten pertsonen eskubideak betearazteko bidean, gizarteratze-, tolerantzia- eta errespetu-printzipioei jarraiki.

Jaruera-Eremuak

APNABI Autismo Bizkaia elkartearen jarduerak hainbat eremutara hedatzen dira: kontsultak, AEN bat duten pertsonari diagnostikoa eta tratamendu espezializatu goiztiarra emateko; hezkuntza, Aldamiz ikastetxean ematen dena, giro egituratuan, eta proiektu eta tailerretan oinarritutako metodologiarekin; eguneko arreta, irizpide polibalentearekin ematen dena, eta AEN bat duten eta eskola garaia bukatu duten pertsona guzientzat irekia dena; etxebizitza zerbitzuak, eredu komunitario batekin planteatuak; familientzako laguntzak, zeintzuen bidez laguntzaile-lana egin eta programak garatzen baitira familien atsedean eta arnasaldi premiak asetzeko eta gainkarga emozionala murrizteko; eta aisialdia eta denbora librearen, banakako eta taldekako gozamen-aukerak sustatzeko. Era berean, APNABI sustapen soziolaboraleko eremu bat ere badu, non AEN bat duten pertsonen trebetasun funtzionalak barneratzen baitituzte gizartearen sartzeko eta enplegu bat izateko.

- **Kontsultak:** APNABI Autismo Bizkaia-aren zerbitzuak bere baitan hartzen ditu diagnostikoa, tratamendu espezializatu eta goiztiarra, eta haur eta gazteen arreta psikiatrikorako jarraipen ambulatorioa (0 eta 18 urte bitartean); hori guztia, AENdun pertsonak ahalik eta eboluzio handiena izan dezan. Zerbitzu hori hitzartuta dago Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin.

Era berean, APNABI Autismo Bizkaiak aholkularitza juridikoa, arreta soziala eta arreta goiztiarra ematen ditu.

- **Hezkuntza:** APNABI Autismo Bizkaiak bi programa desberdin kudeatzen ditu bere Hezkuntza Eremuaren bidez, biak hala biak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin hitzartuak:
 - Eskolaratze programa bat Hezkuntza Bereziko Aldamiz Ikastetxean. Bestalde, gelak daude hiru ikastetxetan, zentro horiek dauden auzoetako komunitatean bertan txertatuta. Asmoa da autismoa duen ikasleak ikaskuntza faktoretzat har dezala eskolaratzearen testuinguru soziala, komunitateko kide bihurtu dadila, eta hala, ingurukoek ezagutu, errekonozitu eta baloratu dezatela.
 - Arreta programa ibiltaria. APNABI Autismo Bizkaia elkarteak irakasle ibiltariak ditu, eta ikastetxetara joaten dira ikasleak ikastetxe arruntetan eskolatuta dauden kasuetarako. Era berean, profesionalentzako sentsibilizazio- eta orientazio-jarduerak egiten ditugu ikastetxe bakoitzaren hezkuntza premiei erantzuteko.
- **Eguneko Arreta:** APNABI Autismo Bizkaia elkarteko eguneko arreta eremuak AEN bat duten eta eskolako etapa amaitu duten helduen (18 urtetik gorakoak) premiei erantzuten die. Baliabideak eta estrategia indibidualak eskaintzen dizkie beren garapena, hezkuntza eta ongizate pertsonala sustatzeko, eta, aldi berean, beren funtzionamendu indibiduala hobetzeko, beren interesak, premiak eta menpekotasun maila kontuan hartuz. Helburua da autoestima sustatzea eta egoera psikoafektibo egokia bultzatzea.

APNABI Autismo Bizkaiak behar diren laguntzak eta plan indibidual bat diseinatzen ditu AEN bat duten pertsonen laguntzeko beren bizi-zikloaren etapa berrian. Plan horrek helburutzat izan dezake lan arloko sustapena edo sustapen okupazionala edo, laguntza premia handienak dituzten pertsonen kasuan, laguntzak diseinatzea beren osasuna eta egonkortasun emozionala sustatzeko. Horretarako, tarteko dinamikak ere diseinatzen dira eguneko zentroetatik ingurune desberdinetara pasatzeko.

APNABIko Eguneko Arreta Zentroetan garatzen diren jarduerak:

- Gizarteratzea.
 - Egokitzeko gaitasunak garatzea.
 - Ongizate emozionala.
- **Etxebizitzak:** APNABI Autismo Bizkaia elkarteak egoitza eta etxebizitza zerbitzua eskaintzen du, komunitateko etxebizitza-eredu batean oinarriturik, talde txikitik eta laguntza indibidualizatu pertsonal eta sozialekin. Hala, etxebizitzak kokatuta dauden inguruko pertsonekin partekatzen dira hiritar guztiak erabil ditzaketen zerbitzuak.

- **Familientzako laguntza:** APNABI Autismo Bizkaia elkarteak aholkularitza eta laguntza ematen dizkie AEN bat duten pertsonen familiei, eta behar dituzten baliabideak eskaintzen dizkie beren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetu dezaten. Era berean, behar duten laguntza eta aholkularitza ematen die beste erakunde batzuetan egin beharreko tramiteak kudeatzeko.

Bestalde, jarduerak eta topaketak antolatzen ditu familientzat, eta gainera, laguntza ematen die prestakuntza eta informaziorako ekitaldiak eta jardunaldiak antolatzeko.

- **Aisialdia eta Denbora Librea:** APNABI Autismo Bizkaia elkarteak sustatzen dituen aisialdi eta denbora libreko jarduerak beraizik antolatzen dira AENak dituzten pertsonen gozamen eta entretenimendurako.

APNABI Autismo Bizkaia elkarteak baliabideak eta laguntza ematen dizkie AEN bat duten pertsoneri, aukera izan dezaten bakarkako aisialdirako edo aisialdi partekaturako eskubidea erabiltzeko komunitateko gainerako pertsona guztiek bezala, ahalik eta modu autonomoenean eta gizarteratzea sustatuz.

APNABI Autismo Bizkaia elkarteak aisialdi eta denbora libreko hainbat programa eskaintzen ditu: ludikoak, kirol arlokoak, opor eta turismo arlokoak, jaietakoak eta bitartekaritza. Hala, era askotako jarduerak antolatzen ditu, besteak beste, hauek: udalekuak, aisialdirako baliabideak, klubak, eguneko irtenaldiak, mendi-ibiliak...

- **Sustapen Soziolaborala:** APNABI Autismo Bizkaia elkartearen helburu garrantzitsuenetako bat da AEN bat duten pertsoneri behar dituzten laguntza eta baliabideak ematea, lan, prestakuntza, okupazio eta gizarte inklusioa lortu dezaten. APNABI Autismo Bizkaia bere baitan hartzen du "Entremanos" elkartearen lana, zeinaren bidez prestakuntza, laneratzea eta parte-hartze soziala ahalbidetzen baita AEN bat duten helduentzat. "Entremanos" elkarteak sustatzen dituen ekimenen artean azpimarratzekoa da "Zazpi" jatetxea, Bilboko San Inazio auzoan kokatutako enplegu zentro berezia. Ezgaitasuna duten hainbat lagunek lan egiten dute bertan, sukaldari buru baten gidaritzapean.

APNABIk zerbitzu okupazional bat ere badu ("Azlan Digital"), zeinak administrazio, paper manipulazio, inprimaketa digital eta web diseinu edo ordenagailuen konponketa zerbitzuak eskaintzen baititu, besteak beste. Lanbide zerbitzuaren laguntzarekin programa bat ere garatzen du. Programa horrek metodologia zehatz bat aplikatzen du enplegua bilatzeko lan merkatu konbentzionaletan, lanerako prestataile baten laguntza indibidualizatuarekin.

Autismoaren Espektroko Nahasteak

Nahaste larria da autismoa, eta ez dakigu zein den bere jatorria. Komunikazio, gizarte-elkarreragin eta hizkuntza arloetako alterazioak dira sintoma nabarmenenak eta alterazio horiek mugak sortzen dituzte neurri handi edo txikiagoan. Alterazioak anitzak dira oso, eta oso profil desberdinak sor ditzakete pertsona desberdinen edota pertsona bakar batengan. Adierazleak (gaitasun kognitiboak, ikaskuntza edo esperientzia...) aldatu egiten dira adinarekin.

Laguntza eta esku-hartze planak bizi-ziklo osoan zehar luzatzen dira, eboluzionatu egiten dute norbanakoak duen aurrerapenen arabera, eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzea dute helburu.



Azterlan epidemiologiko berriek erakutsi dutenez, 100 lagunetik batek Autismoaren Espektroko Nahasteren bat du. Oraingoz, arreta goiztiarra, hezkuntza eta laguntza pertsonalizatua dira pertsona horien eta beren familien bizi-kalitatea hobetzeko tresna bakarrak.

APNABIk 150 kasu berri eman zien arreta 2016an

2016an zehar, APNABIk arreta eman zien Autismoaren Espektroko Nahastearen (AEN) diagnostikoa edo halakoren bat izateko susmoa izan duten pertsonen 150 kasu berri; kasu horiek 0 eta 48 urte bitartekoak izan dira, eta gehienak 6 eta 18 urte bitartekoak.

2016an zehar APNABIn erregistratu diren autismo kasu berrien %87 gizonezkoak dira. Proportzioa egonkorra da urtez urte, eta horrek erakusten du emakumeen artean ez dela behar bezainbat detektatzen, bereziki adimen ezgaitasunik ez dutenen artean. Lau gizoneko emakume batek du AEN bat.

Gaur egun autismoari buruz egin diren azterlanetan ikus daiteke desberdintasunak daudela AEN bat duten gizonen eta emakumeen artean. Emakumeek gaitasun sozial eta komunikatibo urriagoak dituzte, sinbolismo handiagoa eta adiskideak egiteko gaitasun handiagoa. Era berean, emakumeen artean ez dira hain nabariak memoriarekin, malgutasun kognitiboarekin, hitz egiteko gaitasunarekin, motibazioarekin eta komunikazio sozialarekin lotutako zailtasunak.

